



## Emakumearen eguna ospatzeko ekitaldiak

Agoizko udaleko berdintasun eta kultura arloek, aurreko urteetan egindako moduan, hainbat ekitaldi antolatu zituzten Nazioarteko Emakumearen Egunaren karietara.

Joseba Eceolazak «Camino Oscoz y otras historias del 36» liburua aurkeztu zuen. Nafarroan frankistek hil zuten maistra bakarra izanik, bere kasua errepresioaren bortizkeriaren ikurra bilakatu da.

Giza mosaiko baten bidez emakumeak ordezkatzeko dituen ikur ezaguna marraztu zen Merkaturako plazan. Urteik urtera partaideak gehitzen ari den zita honetan 280

pertsona elkartu ziren aurtengoan. Irati Antzerki Taldeak «Mueve Aoiz-Mugitu Agoitz» flashmoba



aurkeztu zuen Kultur Etxean. Eta gauean, ohiko afaria egin zen; Irati Taldeak girotu zuen afaria.

Ipuin kontalari saio bat ere egon zen. Araitz eta Tulipa istorioetako protagonisten bidez, nesken eta mutilen arteko berdintasuna garatzen duten ipuinetan barna murgiltzen gara, eta elkarri zor diogun errespetua eta injustiziaren aurka aritzeko ideiak nabarmentzen dira.

Izaga Mankomunitateak antolatutako risoterapia tailerrarekin bukatu ziren emakumearen egunaren inguruan antolatutako ekitaldi guztiak.

## Agoitz ere gelditu zen martxoaren 8an

“Martxoaren 8a” batzordeak Emakumearen nazioarteko Egunaren karietarara mundu osoan antolatutako greba deialdiak arrakasta handia izan zuen Agoitzen. «Gelditzen bagara, mundia gelditzen da» lelopean antolatutako jardunaldia historikoa izan zen, eta Mendiburua plazan 260 bat lagun elkartu ziren, gaur egun arlo guztietan (lansarien arteko aldea, diskriminazioa, bortzikeria sexuala) dagoen desberdintasunarekin bukatu behar dela aldarrikatzeko.

Agoizko Udala grebaren alde egin zuen martxoko osoko bilkuran hartu zuen akordioaren bidez.



## Ekai Lersundirekiko atxikimendua

Agoizko Udalak agerpen instituzional bat onetsi du, zeinetan Ekai Lersundi Ondarruko transexual gaztearen heriotzagatiko dolua agertzen duen.

Haren bidez, gainera, Ekaiaren familiari elkartasuna adierazi nahi

izan dio, eta egoera mota horiek aurreikusteko beharra aitortzen du, neska-mutilek, nerabeek askatasunez hezi daitezzen, beren sexu eta genero identitateari jarraikiz. Horretarako, gizarte, osasun eta hezkuntza arloetan beharrezko baliabideak bermatu behar dira.

Modu berean, Udalak LGBTBI+ pertsonen berdintasun sozialarekiko konpromisoa berretsi du, osorik eta egiazki bete dadin. Zentzu horretan errefuxatzen du lgtbfo-bia adierazi edo sustatu ahal duen edozein ekintza edo adierazpen, bereziki hezkuntzaren arloan.

## Mueve Aoiz, mugitu Agoitz

Agoizko Udaleko Berdintasun Arloak ekimen berria ezagutzera eman nahi du Agoizko herritarren artean: Mueve Aoiz-Mugitu Agoitz.

Denen artean flasmob bat egitean datza, ekainaren 3an grabatuko dena, Merkatuko plazan. Herriko gehienek parte hartzea nahi da berdintasuneko eta eraso sexistarik gabeko Agoitzen alde.

Emakumearen eguna ospatzeko antolatutako ekitaldiak aprobetxatuz, Irati Antzerki Taldeak ekainean egingen den dantza aurkeztu zigitun. Turoriala prestatu

da, norberak prestatu eta entseiatzeko. Udalaren web-gunean eta youtuben zintzilikatu da.

Modu berean, Kanpondoak dantza entseiatzeko bi master class eskainiko ditu maiatzean zehar, eta San Migel DBH Institutuak gauza bera egingen du gimnasia eskola orduetan.

Gainera, ekimenaren irudia eramanen duten zapi batzuk prestatu dira momenturako. Dagoeneko salgai daude udaletxean, eta 1€ truke eskura ditzakezu.

Berdintasun Arloak herritar guz-

tiei alde aurretik eskerrak eman nahi dizkie beren partehartzeagatik, eta eraso sexistari gabeko Agoitzen alde parte hartzeko gonbitea egiten dizue.



## Miguel Laparra, errefuxiatutako familiekin

Duela gutxi Agoitzera egindako bisitan, Miguel Laparra Nafarroako Gobernuak gizarte eskubideetako presidenteordeak bisitatu zituen Agoitzen errefuxiatuta dauden familia siriar eta venezuelarrak. Guztira 24 pertsona dira, 6 laguneko 4 familia Nasuvinsak Agoitzen dituen etxebizitzatan bizi direnak, Nafarroako Gurutze Gorriak

kudeatzen duen harrera programa bati esker.

Kontseilariak familia horiekin partekatatu zituen gaztelera eskolako une batzuk. Errefuxiatuek udaletxean ikasten ari dira gaztelera, herriko boluntarioekin. Egindako bisitan, Miguel Laparrak jakin nahi izan zuen nola zeuden errefuxia-

tuak eta zer behar zituzten.

Modu berean, Unai Lako alkateak pozik agertu zen, herritarren erantzuna eta harreragatik, hala nola pertsona horiek egunerokotasunean izaten ari diren integrazioagatik.

## Aspacek birziklapena egiteko pabilioia estreinatu du

Miguel Laparra lehendakariordeak parte hartu zuen Agoitzen Aspacek etxeko tresna elektrikoak birziklatzeko duen pabilioi berriaren inaugurazio ekitaldian. Harekin batera egon zen Eva Garcia Ingurune eta Lurralde Antolaketa zuzendari orokorra. Enpleguko Zentro Berezia Nafarroako Gobernuak diruz lagundutakoa da, eta bertan 60 pertsonak lan egiten dute. Instalazio berriek 2.000 metro koadro dituzte, hasierakoekin batera, hondar materialak antolatzeko mugimenduak egiteko leku gehiago eskaintzen

duzenak. Pabilioiaren azalera orain dagoena bikoizteaz gain, egindakoak lanpostu gehiago sortzeko aukera emanen du.

Inaugurazio ekitaldian Laparra

lehendakariordeak azpimarratu zuen Aspacek dituen 40 urte horietan zehar burmuin paralisia edo antzeko gaitzak dituzten pertsonen gizarteratzearen alde egindako lana.



## Aurrepirinioko herri gehienek eskualde propioa osatu nahi dute

Nafarroako Gobernuak toki mapa aldatzeko egindako proposamena dela eta, azken hilabeteetan zenbait mugimendu eman dira. Exekutiboaren hasierako ideia Aurrepirinioa eta Zangozaldea eskualde bakar batean elkartzea, Irati-Aragoi eskualdean deituta koan hain zuzen ere, eta bertan, bi azpi-eskualde horiek bereiztea.

Baina Zangozako Mankomunitate-

ren nahiz Izaga eta Irati Mankomunitateen (Agoitzen dute egoitza) inguruan antolatutako entitateek uste dute eskualde autonomo eta bereziak izan beharko lirakeela, gaur egun zenbait zerbitzu komunean kudeatzen dituztelako, gizarite zerbitzuak eta hondakinen bilketa, esaterako.

Gehiengoan uste hori azalarazteko, Aurrepirinioa osatzen duten 12 en-

titateetako 9k idatzi bat igorri zuten pasa den martxoaren 14ean Toki Administrazioari Departamentura. Bertan honako udalerrri hauek eskualde berezitua osatzeko nahi adierazi zuten: Longidak, Artzibarrek, Ortz-Beteluk, Izagaondoak, Untzitibarrek, Lizoain-Arriagoitik, Urrotzek, Urraulbeitik eta Agoitzek. Ibargoitik eta Elok ez zuten sinatu, eta Urraulgoitik ez du jarrerarik hartu, gaia aztertzeko oso bilkura egin arte.

## Iratiko Bide Berdea: azken berriak

Pasa den martxoaren 1ean Nasuvinsak Iratiko Bide Berdea zeharkatuko dituen bederatzi udalerrietako ordezkariak biltzeko dei egin zuten, EKH-k (Ebroko Konfederazio Hidrografikoa) eta Lan Publikoko Ministerioak (errepideak) bide berdearen trazaduran eskatutako aldaketan inguruko informazioa emateko. Horiekin proiektu berriak Ministerioan aurkezteko oniritzia izanen luke.

Aldaketek eragina dute Erro, Aos eta Ledeko pasarelatan, hala nola

Mendiorozko gurutzan egingen den lur-azpiko pasabide batean. Apirilean zehar proiektu berria Ministerioan aurkezteko asmoa dago, bertan onar dezaten.

Obren exekuzioari dagokionez, adierazi da TRAGSA proiektua egingen duen enpresa baldin bada, sei hilabeteren buruan hasteko moduan egonen litzatekeela; baina lizitazio irekiaren bidez egiten bada, aldiz, 2019ko maiatza arte atzeratuko litzatekeela.



## Herriko argiteria berritzeko dirulaguntza, onartuta eta ebatzita

Energia Aurrezteko eta Diberstifikatzeko Institutuak (IDAE), Madrilgo Gobernuaren menpeko erakundeak, Agoizko Udalarari eman dio herriko argiteria berritzeko dirulaguntza.

Hari esker, guztira 1092 argi-une eta zaharkiturik gelditutako koadro aldatuko dira, eta horien bidez herriko argiaren potentzia eta intentsitatea kontrolatuko da. Horretarako, IDAEk mailegu bat eman dio Agoizko Udalarari, obra-

ren kostuaren zenbateko berekoa (655.000 euro). Urte bateko zor-



gabetasuna izanen du eta hori igaro ondoko hamar urtetan itzuli beharko da. Maileguak ez du interesik izanen eta ez da zor bizi hartuko, elektrizitatearen fakturan sortuko den aurrepenarekin batera ordaintzen joanen baita. Aurrikusi da herria argitzeko kontsumitzen den energia %71 murriztuko dela.

Udalak dirulaguntza onetsi zuen martxoko bilkuran. Une honetan bukatuta dago behin betiko proiektua, eta lizitatzeko baina ez da falta.

## Araztegiko gestioa berritu da



Agoitz, Longida, Urraulbeiti eta Irunberriko Presio Handiko Ur Hornidurarako Borondatezko Elkartek esleitu du gure herriko araztegiaren kudeaketa, Valoriza Agua S.L. enpresaren alde. Deialdira aurkeztu ziren hiru enpresetatik horrek lortu zituen puntu gehien. Modu horretan, presio handiko ur-horniduraren kudeaketa bermatuta dago, gutxienez, hurrengo bost urteetan.



Pasa den urtea arte, Agoizko Udaleko langileen kargura zegoen plantaren gestioa, horrengatik gastua elkarte osatzen zuten lau udalerrien artean banatzen bazen ere. Lana aurrera eramateko zailtasunak zirela eta (oso tekniko eta nekeza da), elkarteak erabaki zuen lehiaketa bat egitea, zerbitzuaren gestioa lan mota horietan aditua zen enpresa bati esleitzeko.

## Udala, Altsasun atxilotutako aldeko deialdiarekin bat

2016ko urriaren 15ean, Altsasuko ferietan izandako gertaerak direla eta, apirilaren 16an hasi zen ahozko epaia baino lehenago, Agoizko Udalak aho batez



onetsi zuen "Altsasu Gurasoak" izeneko familien plataformak eta "Altsasukoak aske" herritarren plataformak deitutako manifestaldira atxikitzea. Manifestazioa Iruñean egin zen apirilaren 14an, 17:30ean, giza eskubideak, askatasuna eta berme demokratikoekiko konpromisoa adierazteko.

Atxilotutako zortzi gazteek 375 urteko espetxe zigor eskakizunari erantzun beharko diote; gainera, gertakizunei terrorismo delitua leporatu diete. Hori dela eta, Agoizko udalak uste du prozesuak gizarte demokratiko bat, eskubidezko estatu bat, arautu behar duten oinarrizko irizpide demokratikoen aurkakoa dela eta herritar guztien berme juridikoa narriatzen duela.

## 2.636 bizilagun gara

Udalak 2018ko urtarrilaren batean herrian erroldatuta zeuden pertsonen kopurua ofizial egitea onetsi zuen. Pasa den urtearekin aldaratuta, gora egin du herrian bizi diren kopuruak, eta gaur egun 2.636 biztanle gara. 1.332 gizonetako daude erroldatuta eta 1.304 emakumezko. Pasa den urtean ere 44 hildako izan ziren eta 31 jaiotako. 2017. urtean zehar beste herrietatik etorritako 127 pertsona sartu dira erroldan, eta 86k baja eman dute. Eta 46 helbideratze aldaketa gertatu dira herriaren barnean.



## Itoizko urtegiaren bisita gidatuak egingen dira eta ibilgailuak bertaraino ailegatu ahalko dira

Itoizko urtegiara sartzea errealitate bilakatu da Agoizko Udalaren, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren, Cerdana-Garalur eta Nafarroako Turismo Zerbitzuaren artean adostutako planaren ondorioz. Planak turismoa bultzatu nahi du urtegia baliatuz.

Plan horri esker, autoz edo autobusez sartu ahalko da urtegi hori beraraino eta azpiegitura ezagutzeko bisitaldi gidatuak antolatuko dira. Herrian eta eskualdean dauden turismo baliabideen artean bat gehiago izan nahi du ekimenak. Horretarako, bi panel jarri dira, bat Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ordainduta, obra hidraulikoaren inguruko informazioa ematen duena, eta beste bat udalak eginikoa, Agoitzen eta haren inguruan egiteko dauden aukerak eta herriak dituen zerbitzuak agertzen dituenak: eliza bisitatzea, ibilbideak, karabanak aparkatzeko gunea...

Aipatutako planak urtegia bisitatzeko programa bat

dauka: gainezkabidea eta galeriak bisitatzeko dira eta bideo bat jartzen da. Informazio hori eskura dago udalaren, EKH-ren eta Nafarroako Gobernuaren web-orrietan, eta bertan ere bisitak hartzeko zita eskatu daiteke. Bisitaldi konbinatua egiteko aukera dago: urtegia ikusi eta herriko alde zaharra eta San Migel eliza bisitatu.



## Irati Mankomunitatearen egoitza berria, Solanon

Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateak aurki izanen du egoitza berria, Solanoko pabiloietara joanen delako. Entitateak batzar orokorrean hartu zuen erabakia. Pabiloia eskuratzeko 50 urteko alokairu hitzarmena sinatu du Nasuvinsarekin, gobernu nafarraren enpresa publiko hori baita lantegi zaharraren jabea. Akordioa Agoitzen sinatu da, Miguel Laparra Gizarte Eskubideko lehendakariordeak egindako bisita aprobetxatuta. Horri esker, lan egiteko espazio gehiago izanen dute: lehen 800 metro koadro zituz-

ten eta orain 2.200 izanen dituzte. Pabiloia alokatzea abantaila izanen da, lehen 750 euro ordaintzen zituztelako, eta orain, berriz, 500 ordainduko ditu.

Agoizko Udalak uste du oso onuragarria dela Solanoko habeartetara joatea, herriko sarreran bizi gehiago izanen baita. Gainera, biomasa proiektu batean lanean ari da, eta lehortegi batek ere har lezakeen habearte zahar horien parte bat.

## Dirulaguntzen eta hitzarmenen deialdia onetsi da

Agoizko Udalak berriki onetsi ditu euskara, kultura, hezkuntza eta gizarte arloetako dirulaguntza deialdiak eta hitzarmenak. Horiei esker, euskararen normalizazioaren arloan lan egiten duten entitateek hala nola euskara ikasten ari diren ikasleek jaso litzakete dirulaguntza horiek, horiek arautzen dituzten oinarrietan ezarritakoa betez gero.

Herriko kultura arloko entitateek, berriz, aktibitateetarako dauden dirulaguntzen baldintzak eta gainerako zehaztasunak Kulturgunea partaidetza gunean adosten dira, bertan eztabaidatzen eta erabakitzen direlako

dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak.

Kultur arloari dagokionez, dirulaguntzen helburua da Umafyren eta Guraso Elkarteen (bai ikastetxe publikokoa, bai 0-3 urtekoen zentrokoa) aktibitateei laguntza ematea. Bi kontu-lerro desberdin dira, 2.500 eurokoa bat, eta 1.000 eurokoa bestea.

Berrikuntza moduan, aurten atera dira, lehen aldiz, gizarte zerbitzuaren arloko laguntzak, arlo horretan herrian lan egiten duten entitateei zuzendutakoak. Kontu-lerro horrek 1.000 euroko aurrekontua du.

## H-aritu-ren formakuntza jardunaldiak

Martxoan zehar H-arituk jarraitu du bere prestakuntza jardunaldiekin. Hilean antolatutako programazioan bi tailer berri eskaini ziren, eta haietan partaidetza arrakastatsua izan zen.

Alde batetik, jardunaldi bat egin zen Haur Eskolan, etxean eskura ditugun osagaiekin (irina, artoa, ura, gatza) bi masa motekin espermentatu eta manipulatzeko. Tailerra partehartzaileen gustukoa gertatu zen, eta etxean eskuekin aritzeko modu asko aurkitu zituzten.

Formakuntza bigarren saioa, bi egunetan zehar eman zena, sexualitatea izan zuen ardatz. Elisa Jiménez izan zen hizlaria. Gure Artean bikoteei harrera egiteko



zentroan lan egiten duen psikologo eta sexologoak erreparatu eta argitu zituen nerabearoa, haurdunaldia, autoestimua eta abarren inguruko gai guztiak. Oso proposamen interesgarria, gure nerabeei beren sexualitatean laguntzeko.

## Agoitz Hiria Narrazio Laburren XII. Lehiaketa

Berriz erre, hamabigarren aldia da dagoeneko, antolatu da Agoitz Hiria Narrazio Laburren Lehiaketa. Horren helburua herriko haur eta gazteen artean irakurzaletasuna eta literatura sormena bultzatzea da.

Lehiaketa Agoizko San Migel LH Ikastetxe eta DBH Institutuko ikasleei zuzenduta dago, eta baita ere kanpoko beste ikastetxeetan ikasten duten herrikoei.

Lanak egiteko bi aukera dituzte parte hartzaileek: gai libreko gaia prestatu ala gai hauetako bat aukeratu:

Agoizko kultura eta natura ondarea, genero berdintasuna, sexu heziketa arduratsua, teknologia berriak (Agoizko Udalaren politika sozio-kulturaleko interes bereziko ardatzak, hain zuzen ere).

Oinarriek (web-orrian daude ikusgai) bi modalitate ezartzen ditu: Lehen Hezkuntzako ikasleak eta DBHko 1. Zikloko (1. eta 2. Mailak) eta 2. Zikloko ikasleak. Lanak aurkezteko epea heldu den apirilaren 26an bukatu eta San Migel LHI eta DBHko administrazio bulegoetan aurkeztuko dira.

## Agoizko udala, Fermín Balentziaren hautagaitzaren alde

Nafarroako memoriaren aldeko talde guztiek Fermín Balentzia Mendia abeslariaren hautagaitza proposatu zuten, 2018ko Bianako Printzea Saria jasotzeko. Orain, Agoizko udala atxiki da proposamen horri.



Erabakiarekin gure herriko udalak aitortu nahi du memoria historikoa berreskuratzearen alde Balentziak egin duen lana.

Kantautorea ezaguna da Nafarroaren alde osatu eta interpretatutako kantengatik, zeinetan askotan protagonista diren gure lurraldeko jendea eta memoria historikoa. Ibargoitiko Getzen sortua (1948.ean), Potasas de Navarrako meatzaria izan zen. Langile meatzarien mugimenduari lotua egon da, eta 1968. ean hasi zen abesten, eta haren kantak Francoren diktaduraren kontrako tresna bilakatu ziren. Bere emanaldietako asko bertan behera utzi, salatu ziren, eta horiengatik isuna jaso zituen. Ferminen abestiak demokrazia eskatzen zuen Nafarroaren ikurra bilakatu ziren.

## Martxoko kultur balantzea

Emakumearen Egunaren kariatara antolatutako ekitaldiek osatu dute Kultur Arloak martxoan zehar antolatutako ekitaldien ardatz nagusia.

«Emakumeak: sormen gai-sormen iturri» deitutako programaren barnean, artistek eta publikoak zenbait egunetan bat egin zuten Kultur Etxean, bertan antolatutako aktibitateetan parte hartu eta programazioak eskainitakoak disfrutatzeko: artea, bideoa, dantza, poesia eta musika. Herriko emakumeen dimensio artistikoa erakustea helburu duen ekimen hau arrakastatsua izan zen, bai bildutako jende kopuruagatik, baita artisten inpli-

kazioagatik ere. Erakusketa ikusgai egon zen martxoaren 17a arte, eta bisitariak artisten proposamenei haien ekarpenak egiteko aukera izan zuten.

DBH-ko ikasleek «Sherk: el musical» antzezlan-musikal bat presatu zuten, Irati Antzerki Taldearen laguntzarekin, ikai-bidaiarako dirua lortzeko asmoarekin. Kultur Etxean taularatu zen bi egunetan gainezka zegoen entzutegia. Zorionak, artistak!

Agoizko San Migel Abesbatzak ere Aste Santuko eliz musikako kontzertua eskaini zuen elizan.

Hilabetearen bukaeran, Aste Santuko oporren aurreko egunetan, Euskararen Eguna ospatu zuten San Migel LH Ikastetxe eta DBH-ko institutuak.

Bilaketak «Mujeres, hijas del Rock and Roll y de mayo del 68» hitzaldia antolatu zuten, Charo Begué hizlari izan zuela. Horretaz gain, UMAFYren eguna ospatu zuten.

Azkenik, Kulturguneak bilkura izan zuten, datozen Sanisidroetako eta abuztuko jailetako programazioa antolatzeko. Beharrezkoa da ekitaldiak denborarekin ixten joatea eta berriak proposatzea.



## Kudeatzaile berria Kanpondoan

Kanpondoak kudeatzaile berria dauka dagoeneko. Larritz Osés Ripalda Txantreako gaztea da, karguan esperientzia duena, aurretik Lekunberriko enpresa publikoan zuzendaritza lan bera egin baitu.

Agoitzen lanean ari da pasa den martxoaren erdialdetik. Larritzek Jorge Vaquero ordezkatu du Kanpondoako zuzendaritzan. Bi kudeatzaileak elkarrekin aritu dira

bi astez, trantsizioa errazago gerta zedin.

Larritz, oihan suhiltzailea eta igeriketa monitorea da. Diziplinatua eta kirolzalea dela dio. Txantreako gazteak udal kirol kudeaketarengatik duen ilusioa helarazten digu, eta erabiltzaileen eta herriko eragileen esanetara jarri da. Zorte on!

